



VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

**Lineako bildumak: lege-betekizuna baino harantzagoko
erronkak**

Hitzaldia: Montse Gumà

Museu Nacional d'Art de Catalunya

Lineako bildumak: lege-betekizuna baino harantzagoko erronkak

Lineako bildumak: helburuak, lan-prozedurak eta proiektuaren eskalabilitatea

Museo guztiek behar dute beren ondarea katalogatua izan; baina Kultura Ondare Katalanari dagokion 9/1993ko Legeak dioenez, zeina Catalunyako Generalitateko Lehendakariak eman baitzuen, kultura-ondarearen babes, kontserbazioa, gehikuntza, ikerketa, zabalkundea eta sustapena hartzen ditu kontuan, gainera, lege horren xedeak.

Museu Nacional d'Art de Catalunyako bildumara lehen hurbilpen bat eginez, zifretan, ikusiko dugu funtsak gutxi-asko 300.000 objektukoak direla, irudi banarekin katalogatu eta identifikatu behar direnak. Datu horiek azkena argitaratu den jardueren memoriatik ateratakoak dira. Eskema honetan ageri da halaber bilduma guztiz zabal bat, erromanikotik abangoardietaraino heltzen dena, eta, hori dela-eta, arteaz mintzatzen garenean ageri diren tipologia eta teknika posible gehien-gehienak hartzen ditu bere baitan: horma gaineko, ohol gaineko eta oihal gaineko margolaritza, harrizko eskultura, zurezkoa, numismatika, marrazkia, grabatua, litografia, urre- eta zilargintza, metal-lana, ehun-lana, argazkigintza... Azken batean, aldi berean da panorama zabala, bariatua eta osoa.


Bilduma	Guztira (2012/12/31n)
Erromanikoa	773
Gotikoa	2.383
Errenazimendua eta Barrokoa	1.225
Cambó Ondarea	50
Thyssen Bilduma	50
Arte Modernoa	6.457
Argazkiak	34.888
Kabinete Numismatikoa	135.407
Marrazkien Kabinetea	Marrazkiak: 51.085
	Kartelak: 9.573
	Grabatuak: 50.000
GUZTIRA	291.891

Generalitateko museoek, bestalde, eta duela urte batzuk, bilduma-kudeatzaile bakar batekin lan egiten dute (Museumplus), eta pixkana-pixkana euskarri horretan ari da katalogazioa sartzan, obra bakoitzaren irudi identifikatzaile banarekin. Kasu honetan, funts zabalak dituzten bildumek ez daukatela oraindik katalogazioa guztia informatizatua erakusten digute zifrek. Kudeatzaile hau, museo honen kasuan, hizkuntza bakarrean dago (katalanez), eta museo bakoitzak bere premietara egokitu du. Bere garaian, ez zitzaion lehentasunik eman bildumen kudeatzaileari beste hizkuntzak eransteari.

Museumplusen sartutako erregistroen¹ eta objektuen kontabilizazioa:

Bilduma	Museumplus erregistroak guztira (2014/08/12)	Objektuak guztira
Erromanikoa	988	769
Gotikoa	2.657	2.368
Errenazimendua eta Barrokoa	1.346	1.231
Cambó Ondarea	51	50
Thyssen Bilduma	59	50
Arte Modernoa	5.961	5.755
Argazkiak	39.720	39.497
Kabinete Numismatikoa	35.117	35.074
Marrazkien Kabinetea	Marrazkiak: 52.540 Kartelak: 9.611 Grabatuak: 14.172	50.466 9.609 13.835
GUZTIRA	162.222	158.704

Kudeatzaile honek zuzeneko irteera dauka Internetera, bakarra Generalitateko museo guztientzat (Museus en línia), baina ez du gogoan hartzen argitaratze-irizpide bateraturik, zeren, funtsean, barne-erabilerako tresna moduan baitago pentsatua, kudeatzen duen erakundetik kanpoko erabiltzaileek ezin erabili eta ezin kontsulta lezaketena. Horrek esan nahi du datu bera hainbat modutara sartua egon daitekeela, eta, hortaz, bilaketan emaitzak ez dira oso fidagarriak; horrez gainera, esan den bezala, fitxa teknikoak katalan hutsean daude idatziak, eta, horren ondorioz, zabalkundea nahiko murrizta da.



¹ Objektu bakoitza erregistro gehiago dago, zeren, esate baterako, erretaula batek (objektu batek) erregistro asko eduki baitaitezake sartuta (osatzen duten tauletako bakoitza); marrazki-album batek 200 marrazki eduki ditzake (marrazki bakoitzak bere fitxa dauka), etab.

2010ean museoak katalogoa argitaratzea planteatu zuenean, ontzat jo zen eginkizun honi heltzea, webgunean sail berri hau abian jartzeko proiektuaren baitan. Aurreneko arrazoia zen, eta garrantzitsuena, bere izatearen funtsezko elementutzat hartzen zuela Museoak bilduma denen eskura jartzeko eginkizuna, legeak adierazten duena gaindituz. Hortaz, Museoko bilduma argitaratu behar zen, gogoan hartu behar ziren balizko erabiltzaile guztiak, amateurrarengandik hasi eta aditu eta ikastunarenganaino, eta bilduma mundu osora zabaldu. Horren ondorioz, testuaren informazioa hiru hizkuntzatan argitaratzea (katalanez, gaztelaniaz eta ingelesez) izan zen lehen erabakietako bat, eta fitxa bakoitza zegokion argazkiarekin osatzea, erresoluzio handian eta atzealde zuri baten gainean nabarmendua.

Kontuan hartu zen beste motibo bat izan zen informazioa eguneratzeko aukera, bai testuaren informazioa, bai informazio grafikoa, eta modu bizkorrean, unean bertan ia, artelanen ezagutzan aurreratu eta sakondu ahala, edota lanak zaharberritzen zirenean. Horrez gainera, eta hau ez da garrantzi gutxiagoko gauza, Interneteko argitalpena zela medio, pixkana-pixkana ugaldu zitekeen artelan argitaratuen kopurua.

Baina, horrez gainera, lan bakoitza Interneten argitaratzea proposatuz, egiazki joan zitekeen fitxa tekniko huts baten argitalpena baino harago. Hala, informazioa beste modu askotara aberasteko aukera sortzen zen: eskura legokeen material multimediarekin harremanetan jarriz, testuinguru-argazkiak erantsiz, zaharberritze-lan garrantzitsuren bat egindakoan zegokion artelanari buruzko informazioa ere argitaratuz eta zerikusia luketen ikerketa-artikuluekin osatuz... Hau da, ohiko katalogo-inbentario batekin izango luketena bainoz askoz ere informazio gehiago eskainiz erabiltzaileei.

Hala bada, Avanza Plan baten laguntzarekin, lehen erronka bati heldu zion Museoak: aretoetan erakusgai dauden obren katalogazioa argitaratu (1.900 inguru dira), hiru hizkuntzatan: katalanez, espainolez eta ingelesez, bakoitza bere erresoluzio handiko irudiarekin, eta highlightak deskribapen batekin osatu. Gogoan izanik eskakizunen artean bilaketa aurreratua zegoela, eta Museoaren webgune orokorraren kudeatzaileak, 2004an sortua izanik, ez zituela aukera horiek eskaintzen, aparteko azpisail bat sortu zen, lineako katalogoari huts-hutsik eskainia.

Aurreneko erabakiak hartuta, argitaratu beharreko informazioa antolatzeko lana hasi zen, eta lan hori nola egin definitu ere zehaztu beharra zegoen. Hasteko, gogoan eduki behar zen katalogo-inbentarioaren webguneko edukien kudeatzaileak bildumen kudeatzailea behar zuela izan sorburu gisa, hartatik elikatzeko. Horrez gainera, bi tresnak sinkronizatuta egon behar zuten nolabait ere. Lehendabizi, beharrezkotzat jotako metadatuaren alorrak hautatu ziren eta haiek informatzeko modua berriz aztertu zen, ez bakarrik argitaletxe-argitalpenen irizpidearekin (euskarria papera denean bezalakoxe argitaratze-lana suposatzen du linean argitaratzeak), baita haiek modu jakin batean informatuz ere, erabiltzailearentzat asegarriak diren bilaketa-emaitzak eskaintzeko. Hiztegi jakin bat finkatu behar izatea ekarri zuen horrek, eta, batez ere, txip-aldaketa bat Museumplusean alorrak erabiltzeko eta betetzeko garaian. Aldi berean, webguneko bilaketa aurreratuen irizpideak ere gogoan izan behar ziren informazioa zertzerakoan. Harrezkero, kontserbatzaileen, obren zaharberritzaileen eta erregistroko langileen barne-erabilera gainditu zuen tresna bat izan zen Museumplus, eta datu-base bat bihurtu zen, erabiltzaileek on-line-katalogoaren bidez gero eskura izango zuten informazioa alor jakinetan jasotzen zuena, eta, beste aldetik, erabiltzaile horiek berek bilatzaileetan aurkituko zutena.


Lineako bildumak Museu Nacional d'Art de Catalunyaen webgune berrian iraultzen

2013aren amaieran webgune nagusia aldatzeko asmoa hartu zuen museoak, eta «2.0. bidea» osatzea planteatu zen (ordurako hasita zegoen, gizarte-sareetan profilak irekita), eta webgunean aplikatzea. Lehenik, erabiltzaileen parte-hartzea bilatu behar zen, eta, haraxeago joanez, baita haien elkarlana ere, edukiak, ideiak, iradokizunak etab. egiteko orduan. Bigarren, eta museoaren beraren funtzionamenduaren eta antolamenduaren oinarriaren gainean, beste sailetan banatu beharko zen edukien kudeatzailearen gaineko lana, edukien eguneratzea eta sorkuntza ez zedin bakar-bakarrik izan, ordu arte izan zen bezala, Proiektu Digitalen Sailaren ardura. Planteatu zen beste helburu bat izan zen ahalik eta autonomiarik handiena lortzea edukiak eguneratzerakoan eta eduki berriak sortzerakoan, kanpokoan mende egon gabe.


Hasieratik jadanik hautatu zen edukien kudeatzaile ireki bat, Drupal. Zergatik kode irekiko eduki-kudeatzailea? Arrazoiak era askotakoak dira, denak dira garrantzitsuak eta denek definitzen dute Museoaren ikuspegi berri bat, irekiagoa, parte-hartzea askoz ere handiagoa izango duena; alegia, museo sozialago bat. Filosofia oso bat dago kode irekiko edukien kudeatzaile baten atzean, eta guztien lanaren batuketa moduan ulertzen da lana; filosofia hori, museo publikoa den neurrian, gauzatzen da Museu Nacional d'Art de Catalunya «berrian», irekia baitago guztien parte-hartzeari. Softwarea etengabe garatzen da, komunitatearen beraren lanari esker. Drupalen lana egiten dutenek beren lanak argitaratzen dituzte, eta edozeinek balia ditzake, doan, norberak garatu duen gauza batez edonor balia daitekeen modu berean. Beste alde batetik, autonomia handiagoa eman digu edukiak eguneratzeko orduan, eta, gainera, eduki horiek modu zentralizatuan kudea ditzakegu, Drupalen baimenen eta profilen sistemak funtzio batzuk edo besteak egiteko baimena ematen baitie erabiltzaileei, nolako profila eta baimena duten. Azkenik, ez dira lizentziak ordaindu behar, ezta hornitzaile bakar baten mende egon beharrik ere.

Jakintza partekatzeko eta zabaltzeko garaian eratu den filosofia berri honen baitan, edukiak Creative Commons lizentziaren pean argitaratuko direla erabaki da, eta, hala, askatasunez erabil daiteke edozein eduki, izan testua, izan grafikoa, baldin ez bada merkataritza-helburuekin, eta beti ere testuaren egilea azalduz, beharrezkoa denean.

Webgune berria planteatzeko garaian funtsezkotzat jo zen beste alderdietako bat izan zen telefono mugikorrei eta tabletei egokitu behar zitzaiela. Horregatik planteatu zen webgunearen diseinua Responsive Designen, edukiak tresna horien bidez ere eskuragarriak izango zirela bermatzeko. Hori lortzeko, kargatzearen abiadura murriztu da, eta egokitu egin dira nabigazio-menua eta barneko edukien bilatzaileerako sarbidea, testuaren irakurgaitasuna eta irudien ikusgaitasun zuzena. Hala bada, webgunearen eduki guztiak ez dira tresna mugikorretan eta tabletetan eskuragarriak, eta, esate baterako, sail batzuk baztertu egin dira, besteak beste «Bildumaren historia» edota erakusketen eta jardueren sail historikoak; baina lineako katalogoari eman zaio lehentasuna, eta ez alferrik; izan ere, arte-museo bat bere bildumari esker eraikitzen, hazten eta egiten da.



VII Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak
Hitzaldia: Montse Gumà



Erabiltzailearen parte-hartzearen alde egin den apustua gogoan izanik, inplementatu dira, hainbat sailetan, komentarioak eta partekatzeko aukerak, eta area pribatu bat ere sortu da, artelan, erakusketa eta argitalpen gogokoenak bertan markatzeko; horrek, gainera, norberaren ibilbidea sortzeko aukera ere ematen du, eta gainerakoekin partekatzekoa. Berrikuntza bat da, eta hau aurreneko aldiz erabili da Espainiako Estatuan, lineako katalogoan etiketa sozialak inplementatzen direla, Museoak markatzen dituen etiketa ofizialen osagarriak. Elementu horiek guztiek, analizaturik, obren gaineko lana beste ikuspegi batzuetatik fokuratzen lagundu diezaioke Museoari, eta ikuspegi horiek aberasgarriak dira denontzat.

Lankidetzaproiektu digitaletan parte hartzen: Google Art Project eta Europeana

Museoko katalogoaren argitalpenaren ondorio positiboak mundu akademikoaz harago doaz, eta beste alderdi batzuei ere eragiten diete, besteak beste, Museoaren zabalkundeari, ezagutzari eta posizionamenduari. Alde batetik, obra argitaratugabeak edo oso ezagunak ez direnak sarean jarri direnean, ugaltu egin da espezialisten kontsulten kopurua, eta, aldi berean, pixkana-pixkana handitu egin da erakusketetan, argitalpenetan edo zabalkunde-proiektuetan parte hartzeko eskatzen diren lanen sorta, webguneko bisitaldiak ere ugaltu direlarik. Aldi berean, lankidetzaproiektu digitaletan parte hartzeko proposamenak jaso dira, besteak beste Google Art Project eta Europeana-n. Era honetako proiektuetan parte hartzeak Museu Nacional d'Art de Catalunya gure herritik kanpo zabaltzen lagundu digu, baita guretzat oso hurbilekoak diren baina mundu osoan hain ezagunak ez diren artistak eta obrak ezagutarazten ere. Era berean, argi ikusi da ez datozela bat, derrigorrez, Google Art Project-en gehiena

kontsultatzen direnak eta webgunean gehiena bisitatu diren obrak, edota museoak, komunikazioari dagokionez, gehiena azpimarratzen dituenak, eta datu hori oso interesgarria da komunikazio-kanpainak planteatzeko orduan.


Esate baterako, erromanikoaren bilduma eta bilduma modernista hartzen ditugu guk museoko puntu sendo gisa, eta, hasteko, horietan indartzen dira komunikazioaren ikuspegitik. Google Analytics-eko datuek jakinarazten digute obra erromanikoak bai, horiek direla museoko webgune ofizialeko katalogoan gehiena kontsultatzen direnetakoak; alabaina, Google Art Project-en orriaren bitartez gehiena ikusten diren obrei dagokienez, modernistak nabarmentzen dira, kanon estetiko unibertsalago baten baitakoak baitira, eta gertuago baitaude beste kultura batzuetako erabiltzaileengandik. Datu horiek laguntza handia eman diezagukete erabiltzaileen jokamoldeak, zaletasunak eta gustuak analizatzerakoan, eta komunikazio-kanpainetan erabiltzaile berriak erakartzerakoan (izan erabiltzaile birtualak nahiz presentzialak) eta ikusmolde berriak planteatzerakoan. Ez ote dira lineako katalogoan sartzen diren erabiltzaileak gure museo arte erromanikoaren erreferentziatzen hartzen duten espezialistak, eta, horregatik, atal hau ez du zale hutsa den erabiltzaileak kontsultatzen? Ez ote dira erabiltzaile jakin-nahiak, espezialistak baino areago, Google Art Project-en erabiltzaileak, artearen historian ezagunenak diren balio estetikoek eta artisten izenek bultzatuta mugitzen direnak? Ez ote dute Museoaren komunikazio-kanpainak arte erromanikoa bereziki azpimarratu, eta ez erabiltzailearentzat eta Museoko etorkizuneko bisitariarentzat orobat erakargarriak izan daitezkeen beste bilduma batzuk? Egia da, hori bai, Museoak jaso egin behar dituela erabiltzaile birtualaren interesak, beste jauzi bat egin behar duela eta pentsatu behar duela bere lineako katalogoaren argitalpena ez zaiela ikerlari espezializatuari bakarrik zuzentzen, mundu osoari baizik. Horregatik, ondo aztertu eta analizatu behar da edukiaren kokagunea eta hierarkizazioa.

Zer suposatzen zuen Google Art Project bezalako proiektu batean parte hartzea, 2012ko irailean? Google Art Project 40 herrialdetik gora biltzen dituen plataforma bat da; herrialde horietako 250 erakunde eta museoak parte hartzen dute, 40.000 irudirekin, eta arte guztiak eta mundu osoa hartzen duten 6.000 artistaren lanekin. Aukera ezin hobea zela pentsatu zen Museoaren ezagutza mundu osoan zabaltzeko eta handitzeko, baita guretzat oso hurbilekoak diren baina nazioarteko testuinguruan arte-kritikoen onospena izan ez duten artista eta lanen ezagutza zabaltzeko ere.

Hori dela-eta, eta Googlek ipinitako kontratu-baldintzak gorabehera, positiboki balioetsi zen Museoak proiektuan parte-hartzea, hark zekarren zabalkunde eta publizitateagatik. Hasteko, eskubidez libre dagoen eduki guztia eman behar da, manipulazio-, argitalpen- eta zabalkunde-eskubideak barne. Horrek suposatzen du, museo gisa, galdu egiten dela irudi horien eta Googlek irudiekin egin lezakeenaren gaineko kontrola. Hartu beharreko arriskua da, proiektuarekin aurrera jarraitzea ona dela uste baldin bada.

Hasieran, Museoak erabaki zuen Googlen argitaratuko zituela une hartan aretoetan ikusgai zegoen eta ordurako linean argitaratuta zegoen bilduma iraunkorra, 1.900 artelan inguruk osatua. Metadatu-hizkera unibertsal batekin lanean ez aritzeak zekartzan eragozpenak eta hizkeren adostasun-faltatik zetozen arazoak onartu beharra ekarri zuen erabaki hark. Ingelesean argitaratu behar izateak esan nahi zuen webgunearen kudeatzailea zela datuen iturria, baina haren hizkera ez zen adosten Googlek eskatzen zuenarekin. Soluzio jakin batzuk topatu behar izan ziren, mundu osoko beste museo eta erakundeekin metadatuak partekatu ahal izateko; soluzio horiek,

gerora, Europeanak Museoari eskaini dizkion lankidetzeta-proiektu digitaletan elkarlanean aritzeko balio izan dute. Esportatu beharreko datuen bolumena gogoan izanik, Excel formatuko taula batean iraultzeko moduan ipini ziren, eta datu horiek denak, gero, bere zerbitzarian irauli zituen Googlek, eta Museoak banaka-banaka balioztatu zituen, ez bakarrik datu teknikoekikoak, baita zegokion irudiarekin zituen loturak ere. Luzera begira, gehiena komeni den esportazioa da, eta akats gutxiena izaten dituen. Proiektu honetan parte hartzen duten beste museo batzuek, nahiz eta askoz ere erregistro gutxiago izan, eskuz sartu behar izan zuten informazio guztia Googlen. Gure kasuan, balio handia eman zitzaion erregistroen kopuru haziari.




Irudiei dagokienez, museoaren webguneko lineako katalogoan atzealde zuri baten gainean argitaratzen dira, eta, hortaz, egokitu egin behar izan ziren atzealde beltz baten gainean argitaratu ahal izateko, formatu hori eskatzen baitu Googlek. Beste erronka bat ere planteatu zen: edukiz hornitzea Googlek Museoari eskaini zion youtube kanala. Horretarako, 373 bideo prestatu ziren, signogida delakoetan eta audiogidetan oinarrituta. Erants zitezkeen bideo eta argazki osagarri horiei esker, artisten sorkuntza-prozesura hurbildu zitezkeen erabiltzailea, lan jakin batzuen zaharberritzera, gaur egun museo diren eraikin batzuen historiara... Hori guztia dela medio, eta obra jakin batzuei dagokienez, SEO posizionamendu hobea lortzen da luzarora, eta, horren ondorioz, hobeto ezagutzen da Museu Nacional d'Art de Catalunyaren bilduma.


Esperientzia honek, gainera, balio izan zuen konturatzeko egile-eskubideak kudeatzen dituzten agentziek, esparru digitalari dagokionez, oraindik erabaki gabeko gaiak dauzkatela, eta gai horien irtenbidea pixkana-pixkana garatuz doala, era honetako

proiektuak martxan jarri ahala. Une haietan uko egin behar izan zitzaion egile-
eskubideak indarrean zeuzkaten obrak argitaratzeari. Horretarako, eta hasierako asmoa
1.900 obra argitaratzea bazen ere, azkenean 1.464 besterik ez ziren argitaratu, 416
artistarenak. Geroago, proiektuan parte hartzen zuten beste museoekin batera landu
ziren gai horiek, denek ere eragozpen berberekin topo egin baitzuten eta arazo berak
izan baitzituzten. Gai hau konpondu gabe dago oraindik, eta ez zaio behar bezalako
irtenbiderik aurkitu. Ezin zaizkie hirugarrenei utzi, nahiz eta gastuen ardura hartu,
norberak ez dauzkan eskubideak, gero haien gaineko kontrola erabat galtzen baita.
Horrek esan nahi du agentziek kudeatzen dituzten eta indarrean dauden eskubideak
dituzten artistak ezin direla era honetako proiektuetan egon, hori egitean eskubideak
hirugarrenen esku geratzen baitira.


Museoaren kasuan, beste bi gauza ere kontratatu ziren Google Art Project-ekin: gigafoto
deritzana eta bisitaldi birtuala, Google Street View-aren teknikarekin egina. Barne-
intendentzian oso lan handia egin behar izan bazen ere (argazki-platoak Googlen
ekipoen aginduetara ipini; desorduetan filmatu, Museoa itxita eta jenderik gabe
zegoenean; argi naturalaren sarrerak estali, gigafotoa egiteko hautaturiko lanaren
filmaketari eragin diezaiokeen-eta; publikoari eta museoarekin elkarlanean ari ziren
langile eta enpresei aretoak itxi...), emaitzak merezi izan zuen. Aretoetako ibilbideak
erabiltzaile birtualei aretoak etxetik ikusteko bidea ematen die, haietan dauden obrak
ezagutzeko, Museoako beste espazio garrantzitsu batzuk ezagutzeaz gainera, hala nola
Areto Obala edo Kupularen Aretoa. Eragozpen bakarra da bisitaldi birtuala, agerikoa
denez, ez dela iOS hizkerarekin bateragarria.



Gigafoto delakoarentzat Bernat Martorellen Retablo de san Vicente izeneko koadroa
hautatu zen, gotikoko obra bikaina, zeina, teknika honi esker, xehetasunik txikienean ere
ikus baitaiteke. Gigafoto honek Generalitat de Catalunyaoko Ondarearen Zerbitzuak
egindako beste bi: erromanikoaren funtsezko obra batena, Sant Climent de Taüll elizako
absidea, eta artista katalan unibertsalenetako bat den Marià Fortunyren La vicaria
generoko koadroarena. Hirurak kontsulta daitezke lineako katalogoaren bitartez.




Emaitzak positiboak dira, eta iritsi den konklusioa izan da lehen baino ezagunagoak direla orain, bai museoa, bai bilduma osatzen duten artistak eta obrak. Horren adibide on bat da 2014ko ekainaren 25ean, Antoni Gaudíren jaiotzaren urterrena baitzen, Google Art Project-ek Museu Nacional d'Art de Catalunya-ko obra batekin ospatu zuela eguna twitterren: Casa Batllóko konfiantzazko laguna altzariarekin. Era honetako publizitateak ez dauka preziorik. Hori dela-eta, Google Art Project-en tankerako ekimenek, museokoa bezalako kontu txikientzat, badute beren balioa.



Era berean, garrantzitsua da proiektu bizi baten parte izatea, egunero hazten baita, ez bakarrik bertaratzen diren artistei, obra berriei eta parte hartzen duten museo berriei dagokienez, baita eskaintzen diren zerbitzuei dagokienez ere: erakusketen eta bilduma propioen pertsonalizazioa, heziketa- eta ikasketa-baliabideak, bildumak eta komentarioak partekatzea... Azken batean, artea mundu osoan ezagutarazi eta zabaltu nahi duen komunitate handi baten parte izatera igarotzen gara. Eta museoko obrak arte unibertsaleko maisulan nagusien ondoan ageri dira.


Museoek izan ohi dituzten publizitatearekin eta aurrekontuekin ezin pentsatuzkoak izango liratekeen erabiltzaileengana eta txokoetara heltzen gara, espekto zabaleko plataforma birtual honengatik eta beste batzuegatik ez balitz guztiz ezinezko gauza izango litzatekeena (Google Art Project, Europeana, Wikipedia, etab.).



Europeana

Google Art Project-en parte hartu ondoren, hainbat proposamen heldu zen museora, Europeanaren esparruan zenbait proiektutan parte hartzeko. Plataforma hau datu bibliografikoko banku handi bat sortzeko jaio zen, eta, pixkana-pixkana, beste helburu batzuetara hasi zen zabaltzen: ondare europarraren plataforma handi bat bihurtuz. Azkenean, Museu Nacional d'Art de Catalunya-ren parte hartzea bi proiektuotan gauzatu zen: Partage Plus: Digitising and Enabling Art Nouveau for Europeana eta Europeana Photography.

Aurrenekoaren xedea zen arte Nouveauko plataforma bat sortzea; bertan 23 europar erakundek parte hartzen dute, arlo guztietako 75.000 obratik gora bilduz. Museoaren konpromisoa izan zen modernismo katalaneko 2.082 obra linean argitaratzea Europeana atarian, eta, aldi berean, obra horiei zegozkien irudiak Europar Batzordeak finkaturiko parametro estandarretan digitalizatzea, eta ondoriozko metadatuak katalanerara itzultzea. Proiektuak planteatu zuen helburuetako bat izan zen katalogoan linean argitaratu diren 56 3D-ak argitaratzea. Gaur egun, multimedia-material osagarri gisa aberasten dituzte museoko bildumak.



Bigarren proiektua uneotan ari da lantzen, eta helburua du 500.000 vintage irudiko funts bat eratzea, argazkigintzaren aurreneko ehun urteei buruzkoa: Fox Talbot eta Daguerrenengandik hasita, bigarren mundu gerraren hasieraraino. Kasu honetan, museoa eskuz esku doa Generalitateko Ondarearekin, eta 1838 eta 1938 bitarteko 1.000 argazki argitaratzeko konpromisoa hartu da. Kasu honetan ere Europar Batzordearen estandarren arabera egin da digitalizazioa, eta metadatuak, katalanez, proiektuan ezarritako irizpideen arabera antolatu dira.



VII Arte Garaikideko Dokumentazio Zentron Topaketak
Hitzaldia: Montse Gumà

Kasu batean zein bestean, eta Google Art Project proiektuan ez bezala, hartan inolako muga edo baldintzarik gabe ematen eta uzten baitzen material guztia, hartu beharreko aurrenekoetako erabakia izan zen zer komeni ote zen gehiago, batzaile batekin ala batzailerik Gabe lan egitea. Hausnarketa luze baten ondoren, erabaki zen batzailerik gabe lan egingo zuela, eta museoa bera izango zela argitaratzailea, aurreneko proiektuan, eta Generalitaten batzailearekin lan egingo zuela bigarren kasuan. Kasu batzuetan alboratu egin behar izan da eskubideak indarrean dauzkaten egileen lanak argitaratzeko asmoa, eta, argitaratu direnean, dokumentazioa eransten da, egiaztatuz egilearen ondorengoek obra Europeanari utzi diotela argitara dezan, edota, egile horien obra agentziek kudeatzean dutenean, Europeanaren atarian argazkia alboratu eta museoko atariaren irudia argitaratu. Gogoan hartzen badugu modernismoaz ari garela eta mende bateko antzinasuna duten argazkiez, lan neketsua izan dela esan behar da.

Gaurko erronkak eta etorkizuna

Gaur egun, eta bildumako obren lineako argitalpenari dagokionez, mahairatu diren eta jadanik lantzen ari diren erronkak erabiltzaileekiko interakzioarekin lotzen dira, betiere obren bitartez. Horregatik, museoaren webgune berriaren alorrean, erabiltzaileei zabaldu zaizkie, ez bakarrik ohikoenak dituzten webguneko espazioak (blogak eta profil sozialak, nagusiki), baita, eduki instituzionalagoak ez nahasteagatik, batzuetan galaraziak dauzkaten espazio batzuk ere. Lehenago ere esan den bezala, aukera asko zabaldu dira: obrak etiketatu eta komentatu daitezke, gaikako ibilbide birtualak egin, erabiltzaileak bereak sortu eta parteka ditzake gero, edo gogokoenak markatu eta partekatu, bere irudi-galeria propioak sortu; jolasen bat ere eskaintzen da (puzzleak, pista-jolasak, lehiaketak...), eta hori guztia gero eta gehiago eskatzen duen publiko bat leialtzeko xedez; izan ere, publiko horrek ez du artea ikusi bakarrik egin nahi; arte horrekin elkarreraginean jardun nahi du, parte hartu eta bere iritzia adierazi nahi du, eta museoak, harrera egiteaz gainera, aditzen duela sentitu.

Nolabait ere, eta gogoan harturik bilduma publikoa eta gizartearena dela, erabilera berriak bilatu behar dira; ezagutza eskaintzeaz gainera, jolasaren bitartez ere (puzzleak, diferentziak, osotasun baten parteak...) beste obra batzuk, obren alderdi ez oso ezagunak azpimarratu behar dira, ikonografia-hastapen batzuk eskainiz, era horretan erabiltzaileek modu atseginenean aurre egingo baitiote artelanari. Orain aztertzen ari garen ideia bat da komeni ote den bilatzaile aurreratuaren erabilera indartzea eta, berebat sare sozialen hurbiltasunaren laguntzarekin, pista-jolasak planteatzea, harik eta obra bat edo artista bat asmatzen den arte. Azken batean, artelanak jendeari hurbildu nahi zaizkio, eta modu ludikoago batean landu: jolastuz batera ikasi. Hauxe da museoek, fortuna handiagoarekin edo txikiagoarekin, orain planteatzen duten helburuetako bat, bai publiko orokorra, bai familiak eta eskoletako publikoa gogoan hartuz.

Erabiltzaileekiko elkarrizketa bilatu nahian betiere, eta haien parte-hartzea edukirik sortzeko garaian, obren gaineko komentarioak sustatzeaz gainera, gizarte-etiketen aukera zabaldu da, lehen ere aipatu den bezala, museoko etiketak deritzanekin batera. Argi izan behar dugu webgunean eskaintzen diren bilaketa-irizpideak ez direla beti izaten bilaketa bat egiteko orduan planteatzen direnak edo erabiltzaileek behar dituztenak. Hori dela-eta, kanal hau martxan jartzea erabaki zen, erabiltzaileek parte hartzen dutena; eta museoa aitzindari izan da horretan Estatu espainolean. Museo anglosaxoietan ez bezala, hemen ez dago halako tradiziorik, eta nekeza izan da dinamika hau martxan

jartzea, egia bada ere pixkana-pixkana zabaltzen ari dela: gehiago katalanez, gutxiago espainolez eta askoz ere gutxiago ingelesez, horretan ere webgunearen erabiltzaileen hizkuntza-profila islatzen delarik. Hala, Museoen astean, twitter-en (#MuseumWeek 2014ko martxoak 24-30) lineako bildumako obrak etiketatzea proposatu zen jarduera gisa, eta ez zen inolako arrakastarik lortu: inork ez zuen hartan parte hartu. Alabaina, eta hilabete batzuk bakarrik igarota, egunero-egunero izaten da alta eman beharreko etiketaren bat, eta, egia esatera, oso-oso gutxi izan dira etiketa negatiboak. Alor horretan ere bilatu behar da barne-konplizitatea: kontserbatzaileek eta hezitzaileek etiketatzen ikasi behar dute, beren ikerketa-interesen eta lan-ildoan arabera. Era horretan, sartzea zaila den esparru bat zabaltzen zaie, baina luzarora oso erabilgarria gerta dakiekeena; aldi berean, gainera, beren ezaupideak partekatzeko modua da. Etiketen bitartez, erabiltzaileen arreta erakar dezakete erabiltzaile hutsak erreparatuko ez liekeen alderdi eta xehetasunetara.

Bloga da lineako bildumak eginkizun berezia betetzen duen eta webgunean dagoen beste espazio bat. Erakusketa bati, obra bati, alderdi ikonografiko bati, zaharberritze bati eta abarri buruzko artikulua batzuei esker, ugaltzen ari dira katalogoarekiko interakzioak eta orriotako bisitaldi-denborak, eta baita webgunean mugitzen den trafikoa ere.

Sortua dagoelarik webgune dinamikoa eta irekia, eduki multimediarekin, eta beste komunikazio-kanalera, hau da, telefono mugikorrei eta sare sozialei zabaldua; museoaren eta erabiltzaileen arteko interakzioa hasita, baita erabiltzaile horiek berek edukiak sortzen hasi direlarik ere; hori guztia burutu delarik, beste alderdi bati ekin behar zaio: erabiltzaileen arteko interakzioari berari. Beste urrats bat da museoaren web 2.0. estrategian. Obra jakin batetik abiatuta, debaterako eta eztabaidako foruak sortu, irakasle eta ikasleentzako ikasgela birtualak eratu hezkuntza-jarduerak jakin baten inguruan... Eta hori guztia, hazteko eta erabiltzaileentzako zerbitzuak hobetzeko desirarekin, bestek bizitutako esperientzetatik abiatuta.

Azken finean, era honetako ekimenak abagune egokiak dira komunitatea sortzeko, sinergia positiboak eratzeko, ikasketa eta aisialdia errazteko, gure museoaren ezagutza eta emozioen laborategia bihurtzeko, eta ezaguera, erabilera soziala, zabalkundea eta ikerketa handitzeko, horietan baitira museo bati eusten dioten funtsezko euskarriak.